

euskararen berripapera 2009



Euskara eta haren iraupena ez dira berdin ikusten Euskal Herriko eremu guztietan

Blanca Urgell Kultura sailburuak ekainaren 23an Eusko Legebiltzarreko Kultura eta Gazteria Batzordean egindako agerraldian hizkuntza-politikaz esandako zenbait gogoeta

Izaera plural edo askotarikoa funtsezko baldintza da politika demokratikoan, eta ezinbestean txertatu behar da Administrazioaren jardueran eta, arrazoi gehiagorekin, hizkuntza-politika diseinatu eta gauzatzeko orduan.

Gure Sailak aurrera eramango duen politikan pluralak ez ezik, pluralistak izan behar dugu, gure gizartearen errealitatea askotarikoa baita, eta, aurrera egitekotan, denek elkarren beharra daukagulako, desberdina denaren, gu ez bezalakoa denaren beharra.

Hizkuntza politikak aintzat hartu eta errespetatu egin beharko ditu euskal herritarren desberdintasunak, eskubideak eta askatasunak, kontraesanean erori gabe herritar guztionak diren funtsezko beste eskubideekin. Ahalik eta adostasun sozial eta politikorik handiena daukan hizkuntza-politika garatu nahi dugu, gizartean dauzkagun eragile sozio-politiko desberdinekin negoziatuz eta haien partaidetza integratuz, hizkuntzaren kontuan ere, gizarte demokratikoan ikuspegi desberdinak daudela, begirada desberdinak, kontuan hartuz.

Euskal gizartearen errealitate elebiduna ez da simetrikoa, eta simetriarik ezak tratamendu egokia behar du politika, administrazio eta lege ikuspegitik. Hiztun bakoitzarengan bi hizkuntzek ez dute toki berbera okupatzen eta ez dituzte eginkizun berberak betetzen; ez eta gizatalde, erakunde edo lurralde desberdinetan



Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.

Argozki Press

ere. Asimetria horretan faktore historiko zenbait dago, baina hizkuntza-politika demokratiko batek ezinbestean izan behar ditu kontuan orainaldiko herritarren bizikidetzak exijitzen dituen baldintzak.

Euskal gizartearen hizkuntzetako bat, gaztelania, indartsua da, munduan hiztun kopururik handiena duten hizkuntzetakoa; aldiz, beste hizkuntza, euskara, ahula da, zabal-kunde murrizta du bere mintza-esparruan bertan ere, hizkuntza gutxietako bat da, eta honek nabarmen mugatzen du euskara hitzunei aitortzen zaizkigun eskubi-deen funtzionaltasuna.

Inork ez luke harritu behar euskal administrazioak ahalegin eta baliabide nabarmenki handiagoak bideratzen baditu euskarari babes gehiago emateko.

Kultura Sail honentzat euskararen sustapen-lana ildo garrantzitsuenetako bat da; alegia, euskal hiztunetan euskararen belaunez belauneko transmisioa ziurtatzea eta horretarako behar diren era guztietako baliabideak jartzea.

Inposizioetatik ihes eginez, pertsuasioak izan beharko du Sail honen lanabesik sendoena, hizkuntzetako baten alde hartzen diren neurriak eta erabakiak inork ez ditzan har inposiziotzat edo inoren kaltetzat. Hitza eta hitzaren kultura da gure tresnarik garrantzitsuena, eta hitza eta inposizioa elkarren etsai dira.

Beste alde batetik, euskara eta haren iraupena ez dira berdin ikusten Euskal Herriko eremu guztietan:

- Elebidunen portzentaia handi samarra den tokietan, hiztun horien leialtasuna ziurtatu beharko dugu, euskararen erabilera soziala indartsuago bihurtzea izanik helburu nagusia.

- Elebidunen portzentaia txikia edo oso txikia den tokietan, aldiz, banakako hiztunari aukera ahalik eta gehien eman beharko zaio bere eguneroko bizitzan

euskarari toki gehiago uzteko, erabilera indibiduala indartzeko, erabilera soziala askoz zailagoa izango baita.

Bukatzeko esan dezadan bat gatzela XXI. Mendeko Hizkuntza Politikaren Oinarriak izenburuaz bultzatutako gogoeta irekiaren ondorengo txostenaren bukaeran zerrendaturik ageri diren XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikarentzako Lehentasunezko hamalau ildoekin, eta konpromisoa hartzen dugu hamalau ildo horiek gure jardueran txertatzeko ●


Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza^k zuzendaritza-talde berria du

Martxoaren 1eko hauteskunde autonomikoen ostean osatutako Eusko Jaurlaritza berria maiatzean jarri da abian. Blanca Urgell Lázaro Kultura sailburuak Ramon Etxezarreta hautatu du Kultura Sailak hizkuntza-politikarako eta euskararen sustapenerako dituen zereginak aurrera eramateko. Hona Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egitura:

- Kultura sailburua: Blanca Urgell Lázaro.
- Hizkuntza Politikarako sailburuordea: Ramon Etxezarreta Aizpuru.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza: Patxi Martínez de Marigorta Guzmán.
- Euskara Sustatzeko Zuzendaritza: Lourdes Auzmendi Aierbe.
- Koordinaziorako Zuzendaritza: Igor Calzada Mujika.
- HABEko zuzendari nagusia: Eugenio Mujika Galparsoro.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zuzendaritza-taldea. Goian ezkerretik eskuinera: Lourdes Auzmendi, Eugenio Mujika eta Patxi Martínez de Marigorta. Behean ezkerretik eskuinera: Igor Calzada, Blanca Urgell eta Ramon Etxezarreta.



Euskara ikasleentzako diru-laguntzak handituko ditu Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak, HABEren bidez, **1.850.000 euro** erabiliko ditu, 2008-2009 ikasturtean HABEren edo zentro homologatuetan euskara-maila egiaztatzeke azterketak gainditu dituzten ikasleei laguntzeko. Laguntza horiei esker, **3.900 ikasle**ren ikasketakostuaren %75 ordaindu nahi da.

Ekimen honetarako diru-kopuruak gora egin du aurten, 1,3 milioi eurotik 1,8 milioi eurora. Laguntza handiagotze honek bi helburu bete nahi ditu. Batek, aurre egitea euskara-maila egiaztatuko duten ikasleen hazkunderari, eta bestetik, ikasle bakoitzak

euskara ikasten gastatutakoaren %75 berreskuratzea. Orain arte, kostuaren %59 berreskuratzen zuten ikasleek.

Diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte 2008ko apirilaren 8tik 2009ko abuztuaren 31ra euskaltegi-tan matrikulatuta egon diren ikasleek, beti ere, HABEren euskara ziurtagiriak edo baliokideak egiaztatzen badituzte. Diru-laguntzak eskatzeko epea irailaren 8an zabalduko da eta urriaren 7a arte izango da zabalik. Eskaearak, Internet bidez edo euskaltegi-tan egin beharko dira ●

Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak lankidetzan arituko dira

Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean lankidetzan jarduteko protokoloa sinatu berri dute, etorkizunean bien arteko intereseko arloetan lankidetzan aritzeko esparru orokorra ezartzen duena. Bertan, azpiegituri, ETBk Nafarroan egindako legezko emanaldiei eta hizkuntza-politikari aipamen berezia egin zaie. Protokolo orokorrak urtebeteko indarraldia izango du; epe hori luzatuzat joko da denbora-epe bererako, aldeetako batek espresuki ohartarazten ez badu.

Hizkuntza-politikari dagokionez, bi gobernuen ustez, hizkuntzak autonomia-erkidegoetako biztan-

leen ondare nagusietako bat dira. Euskara kultura-ondarea aberasten duen hizkuntzat hartuta, bi gobernuak, Akitaniako administrazioarekin akordioa eginez, euskara sustatzeko jardueretarako edo euskarazko kultura-jardueretarako laguntza-planak egiteko konpromisoa hartu dute. Euskarari dagozkion gaietan elkarlana eta lankidetzak hobetzeko asmoz, hizkuntza-politikako ikerketa eta dokumentazioa bultzatzeko lokarriak ezarriko dira. Hartara, abian jarriko diren ekintzen helburu nagusietakoa da hizkuntza-politikaren alorreko lankidetzak teknikorako harremanak ezartzea, informazio- eta ezagutza-trukean eta koordinazioan oinarriturik ●

Euskara sustatzeko diru-laguntzak Ipar Euskal Herrian

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) 2007an sinatu zuten 2007-2010 urteetarako elkarlanerako marko nagusiak ezarritakoaren arabera, urtero sinatuko da elkarlanerako eranskina. 2009koan urteko ekimenak eta sustapen-lerroak zehaztu dira. Horien artean, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak jarritako 1.390.000 euroz hornitutako lankidetzarako fondoa dago, Ipar Euskal Herrian euskararen erabilerak sustatzeko ekimenak garatzen dituzten eragile pribatuei zuzendutako diru-laguntzen deialdiaren bidez banatzen dena. Dagoeneko diru-laguntzak ebatzi dira.

Hona hemen deialdiaren daturik aipagarrienak:

- Ipar Euskal Herriko eragileen sustapenerako **1.390.000 €** (Eusko Jaurlaritzak 470.000 € eta Euskararen Erakunde Publikoak 920.000 €).

- **Hitzarmen bidezko** sustapenaren ildotik, 8 eragile nagusiren artean **970.000 €** banatuko dira:

AEK (255.000 €), euskaraz emititzen duten irratiak (255.000 €) eta Seaska (225.000 €) dira laguntza handiena jasoko dutenak.

- **Proiektu Deialdi**arako bideratutako diru-kopurua: **420.000 €**.

- Deialdian 78 proiektu onartu dira. Horietatik 60 diruz lagunduko dira.

- Proiektu gehienak Euskaraz Bizi arloari begira-ko egitasmoak (hedabideak, aisialdia, argitalpenak, bizi soziala) dira (72 onartutakoak eta 54 diruz lagundutakoak).

- Euskaraz Bizi arloan onartu diren egitasmoetatik, %44 inguru Bizi sozialari lotutakoak dira (32 egitasmo). Horietatik 19 diruz lagunduko dira.

- Diru gehien jasoko duen esparrua hedabideena da; esparru horretan 12 egitasmo onartu dira eta horietatik 9 diruz lagunduko dira. Egitasmo horien artean 222.000 euro banatuko dira ●



Literatura Unibertsala bildumako bi lan berri

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak EIZI Erekin (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) elkarlanean bideratzen duen *Literatura Unibertsala* bildumako bi lan berri argitaratu dira: Ainhoa Irazustabarrenak itzulitako Arthur Schnitzlerren **Hildakoek ez dute hitz egiten** narrazio bilduma (140 zenb.) eta Ibon Uribarrik euskaratutako Thomas Bernharden **Alferrikaldua** nobela (141 zenb.). Bi itzulpenak Elkar eta Alberdania argitaletxeek elkarlanean argitaratu dituzte. Azken itzulpen horiek Austriako bi idazle handiren lanak dira eta alemanetik itzuli dituzte.

Hildakoek ez dute hitz egiten liburua Vienan girotuta dago. Bertan mugitzen diren pertsonaiei atxikitzen zaie hiria. Are gehiago, idazlearen ahalegin errealista ikusten da, nolabait esateko, Viena bera bere istorioetako pertsonaia nagusi bihurtzen du, eta hiriak beste pertsonaia guztiak bere baitan hartzen ditu.

Alferrikaldua lanean, berriz, hiru musikariren arteko harremanek osatzen dute mamia. Salzburg-en ezagutu dute elkar Horowitz maisuak Mozarteum eskolan eman duen ikastaro berezi batean parte hartzean. Berehala gertakizun erabakigarri bat izango da: musikari horietako batek, gero Glenn Gould piano-jotzaile ospetsua izango denak, Bachen Goldberg bariazioak jotzen ditu maisuki. Hori izugarriko kolpea izango da beste bientzat: piano-jotzaile oso onak diren arren, inoiz ez dira izango Glenn Gould bezain onak ●



Selektibitatea euskaraz: %94,62k gainditu du

Aurten selektibitatea euskaraz egin duten ikasleen artean 5.188k (%94,62) gainditu dute eta gaztelaniaz egindakoen artean, berriz, 3.822k (%89,61).

Azken urteotako joerari eutsiz, 2008-2009 ikasturtean ere Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU-UPV) unibertsitateko hautaprobak egin dituzten ikasleen artean, euskaraz egin dutenen kopurua hazi egin da. Guztira 9.748 ikaslek esku hartu dute izan diren hautaprobak bi deialdietan, horietatik 5.483 ikaslek (%56,25) euskaraz, eta gainerakoek, 4.265 ikaslek (%43,75), gaztelaniaz. Azken hamar urteotan hautaprobak euskaraz egitearen aldeko joera areagotuz joan da: 1997-1998 ikasturtean %30,9k egin zituen hautaprobak euskaraz, 2006-2007 ikasturtean %51,8k eta 2007-2008 ikasturtean, berriz, %54,58ra igo zen batez bestekoa ●

HABE EHUko Uda Ikastaroetan



Bigarren hizkuntzetako irakasleak: hasierako formazioa izeneko ikastaroa eman du HABE Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako XXVIII. Udako Ikastaroen barruan. Hain zuzen ere, H2ko irakasleek izan beharreko gaitasuna aztertzea helburu duen ziklo bateko bigarren ikastaroa da. Juanba Bergarak zuzendu duen ikastaro honetan 104 ikaslek hartu dute parte. Aniztasun handia izan da jardunaldietan, parte hartu duten ikasle zein irakasleen aldetik. Besteak beste, ikasleen artean, alemaneko, ingeleseko, frantseseko, gaztelaniako eta euskarako irakasleak izan ziren; hizlarien artean, berriz, honako hauek: Ernesto Martín Peris (Pompeu Fabra Unibertsitatea), Ko Melief (IVLOS, Utrecht-eko Unibertsitatea), Frank Heyworth (The European Center for Modern Languages), Marc Wilson (Lacunza International House), Antonio Orta García (CLIC-IH. Sevilla), Benito Fiz Díez (AEK) eta Xabier Bastida (IKA) ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailbuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Sailsa / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailbuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailbuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



DK-000023
100gr.ko Cyclus Print
paper birziklatuan
inprimatua